

2015eko OTSAILAREN 10eko UDALBATZARRA
PLENO DE 10 DE FEBRERO DE 2015

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLETXEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2015-02-10

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 10-02-2015

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2014.eko abenduaren 9an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2014, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- BIDASOA KARRIKAN, 64. ZENBAKIAN, 21,70 M2ko SOBERAKO LURZATIA (9. P, 401. L.) BESTERENGARRIA

2.- DECLARACION PREVIA DE ALIENABILIDAD PARCELA SOBRANTE DE 21,70 M2 EN CALLE BIDASOA 64 (P. 9, P. 401).

DELA ALDEZ AURRETIK ADIERAZ-TEA.

Idazkariak espedienteaz azaldu eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

2013ko urtarrilaren 22an M. Gurutze Ariztia eta Jose M^a Elzaurdiari 9. poligonoko 401. lur-zatian familia bakarreko etxea egiteko obra baimena eman zion Udalak.

Baimen horretan, beste baldintzen artean hauxe jarri zion:

“1.1) Lur-zatiaren barrenean mugarren bidez mugatua dagoen lur-zerrendan ezin izanen du obra edo afekzio iraunkorrik egin jabetza norena den argitu arte.”

2013ko irailaren 18an interesatuek idatzia aurkeztu zuten non eskatzen zuten 9_401 lur zati osoaren jabetza errekonozitzea, obra baimenean aipatu udal lur-zerrendarik ez zegoela eta, ondorioz, lur-zati horretako lur-zerrendan ixteko obrak baimena ematea.

2014ko urtarrilaren 10ean katastro-teknikoak eginiko txostenean 2 mugarri publikoak lur-zerrenda horretan badaudela jaso du.

Beste aldetik, udal katastro zaharretan eta udal artxiboko beste dokumentazioetan oinarriturik, udal abokatuak 2014ko urtarrilaren 21ean eginiko txostenean zera erran zuten:

1) Froga oso garbiak badaude adierazteko 9. poligonoko 401. lur-zatian udal lur-zerrenda badagoela, non lehengo garbitoki publikoa zegoen.

2) Lur-zerrenda hori, gaur egun, oso ongi dago mugatua 2 mugarriengatik, benetako seinale fisiko nabarmenak, beraz, 2013ko irailaren 18an eskatutakoa ukatu egin behar da.

La Secretaria explica el expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Con fecha 22 de enero de 2013 el Ayuntamiento concedió a M. Gurutze Ariztia y José M^a Elzaurdia licencia de obras para construcción de una vivienda unifamiliar.

En esta licencia, entre otras condiciones, le impuso la siguiente:

“1.1) En la franja delimitada por los mojones existentes en la parcela no se podrá hacer ningún tipo de obra o afección permanente en tanto en cuanto no se aclare la propiedad de aquella.”

Con fecha 19 de septiembre de 2013 los interesados presentaron escrito en el que solicitaban el reconocimiento de la propiedad plena de la parcela 9_401, la no existencia de la franja de propiedad municipal citada en la licencia de obras y, en consecuencia, el permiso para efectuar obras de cierre de la parcela en dicha franja.

En informe del técnico de catastro de 10 de enero de 2014 se constata que en dicha franja hay 2 mojones públicos.

Por otro lado, basándose en los catastros antiguos y otra documentación de los archivos municipales, el abogado municipal en informe de 21 de enero de 2014 indica lo siguiente:

1) Existen claras pruebas de la existencia de una franja comunal en la parcela 401 del polígono 9 la cual albergaba el antiguo lavadero público.

2) Esa franja aparece claramente delimitada a día de hoy por mojones, auténticos signos físicos aparentes, por lo que procede denegar la solicitud de 18 de septiembre de 2013.

3) Hala ere, soberako lur-zatia izanda interesatuei zuzenean saltzen ahal zitzaizkien haiek hala eskaturik.

2014ko irailaren 1ean, interesatuak eskatu dio Udalari saltzea udal lur-zatia, bere lur-zatiarekin muga egiten duena, 64. Bidasoa karrikakoa.

Dagokion espediente izapidetu ondoren, 21,70 metro karratuko lur-zerrenda hau soberako lur-zatia dela deklaratu izan da (2015eko urtarrilaren 30ean, NAOko 20. zenbakian argitaratua), beraz, udalerriarren ondasuna da.

6/1990 Administrazioari buruzko Foru Legearen 132.1 artikulua eta Nafarroako Ondasunen Erregelamenduaren 122. artikuluari jarraikiz, toki entitateen ondasunak saldu baino lehen besterengarriaren deklarazioa egin behar da.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatu den soberako lur-zatia saldu baino lehen, besterengarri dela adieraztea udalerriarren ondasuna baita.

2) Erabaki hau interesatuei jakinaraztea euren ezagupenera eta behar diren ondorioetarako.

3.- JAKINARAZTEA 29/2015 EBAZPENA, OTSAILAREN 4-KOA, BERAKO UDALEKO ALKATEAK EMANA, JOSE M. PORTU BERASATEGUIK AURKEZTUTAKO TOKI GOBERNU BATZORDEKIDEAREN KARGUARI UKO EGITEA ONARTU ETA 3. ALKATE ORDEAREN KARGU-UZTEA EGITEN DUENA.

Alkateak azaldu du 29/2015 Alkatetzaren

3) No obstante, siendo una parcela sobrante podría venderse directamente a los interesados si así lo solicitaran.

Con fecha 1 de septiembre de 2014 el interesado solicitó la compra de la parcela municipal colindante con su parcela sita en calle Bidasoa 64.

Tramitado el expediente correspondiente, esta franja de 21,70 m² ha sido declarada como parcela sobrante (publicado en el BON nº 20 de 30 de enero de 2015) y, por tanto, se trata de un bien patrimonial.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 132.1 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local, así como en el artículo 122 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, la enajenación de los bienes de las entidades locales requiere la declaración previa de alienabilidad.

Por todo ello, SE ACUERDA:

1) Previa a la enajenación de la parcela antes descrita, declarar la alienabilidad de la misma por tratarse de un bien patrimonial.

2) Notificar este acuerdo al interesado e interesada para su conocimiento y efectos oportunos.

3.- COMUNICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN 29/2015, DE 4 DE FEBRERO, DE LA ALCALDESA DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE, SE ACEPTA LA DIMISIÓN DEL CONCEJAL JOSE M. PORTU BERASATEGUI COMO MIEMBRO DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL, Y SE LE CESA COMO 3º TENIENTE -ALCALDE.

La Alcaldesa explica el contenido de la Resolu-

Ebazpenaren edukia, Jose M. Portu zinegotziaren dimisioarena.

ción de Alcaldía 29/2015, sobre la dimisión del concejal José M. Portu.

Horren ondotik, J. M. Portu zinegotziak karguari uko egiteko aurkeztutako idatzia irakurri du eta hauxe da testu osorik:

Seguidamente, el concejal José M. Portu lee el escrito de dimisión presentado cuyo texto literal es el siguiente:

-----“2015.eko otsailaren 3ko Berako Gobernu Batzordean Bildu Udal Taldeak hurrengo adierazten du:

Lehen momentutik proposatu zuela Aralar eta Bilduren artean gobernua eratzea, eta legegintzaldian zehar erabakiak modu honetan hartzea. Batetik, ikusita Berako herritarren gehiengoak gobernu ezkertiar eta abertzale baten aldeko hautua egin zuela, eta, bertzetik, EHBILDUREN proiektua abian jarri eta horren baitako funtzionamendu baten alde egonik.

Hala ere, ikusi izan duela legegintzaldi honetan Aralarren izenean Gobernuak Eusko Alderdi Jeltzalearen bozkei esker funtzionatu izan duela, nahiz eta Bildu Udal Taldea erabaki batzuekin ados ez egon. Eta, horretaz gain, alkatetzak ez duela kasu gehienetan Bildu Udal Taldearen proposamenik kontuan hartu, adibidez biomasa galderaren proiektuari buruzko informe bat egiteko eskatu zuenean edota beilatokiaren aferan udalak bitartekaritza lanak egin beharko lituzkeela proposatu zenean, bertzeak bertze.

Bildu Udal Taldearen proposamen eta eskariak kontuan ez hartzeaz gain, egungo Gobernu Batzordea lan egiteko gune egokia ez dela adierazten du, bertan erabakiak hartzeko bozken gehiengoa duten ordezkariak (Aralarko eta EAJko ordezkariak) jarrera oldarkorra agertu baitute hainbatetan gure taldeko ordezkariarekiko; baita nabaritu izan delako, ez bakarrik gure taldeko ordezkariekin, baizik eta errespetu faltaz solastu direla baita herritarrekin eta haiei buruz ere.

Bertzalde, aipatu Gobernu Batzordean gure taldeak ordezkaritza izateak ez duela erran nahi bertan ematen diren erabakiekin ados dagoenik; eta Gobernu Batzordean gaiak tratatu izanak ez duela kentzen afera jakin batzuetan udalean eman beharreko eztabaida bukatutzat eman daitekeenik.

Horrela, Berako Bildu Udal Taldeak, Jose Manuel Portu ordezkari duela, adierazten du, ez duela segituko Gobernu Batzordeko kide izaten, ez ordezkariak ezta Bildu Udal Taldeak ere, lehen aipatutako arrazoiengatik; ez gaudelako ados bertan ematen diren erabaki garrantzitsuenen gehiengoarekin, ez dugulako uste gure boza kontuan hartzen denik, ezta herritarren eskariak ere, eta Berako Udalak, gehiengan, EAJren bozkei esker funtzionatzen duelako; gure irudiz, indar ezkertiar eta abertzale baten ordezkarien arteko eztabaida eta adostasunen bidez egin beharko lukeelarik.

Gobernu Batzordetik kanpo egoteak ez du erran nahi, hala ere, bertan tratatzen diren gaien inguruan interesik ez duenik; Gobernu Batzordetik kanpo segituko dugu bertan ematen diren gai eta erabakien jarraipena egiten.

Azkenik, adierazi nahiko genuke Berako Udalaren funtzionamenduan aldaketa baten beharra ikusten dugula; gehiengoaren gobernu bat eratuz eta herritarren borondatea kontuan hartzeko parte hartzea sustatuz, bertzeak bertze.”-----

Horren segidan, Jose M. Portuk irakurritako

Tras lo anterior, la Alcaldesa para dar res-

idatziari erantzuna emateko Alkateak beste idatzia irakurri du zeina, baita ere, literalki idatzi duen: *puesta al escrito leído por José M. Portu procede a la lectura de otro escrito cuyo texto, igualmente, se transcribe de forma literal:*

----- “Jose Manuel Portuk eta Bildu Udal Taldeak Berako Udaleko Gobernu Batzordean parte ez hartzea erabaki dute, legealdia bukatzeko 4 hilabete falta direnean, eta erabaki hori Osoko Bilkurara ekarri nahi izan dute. Erabaki hori justifikatzeko edo azaltzeko orduan Aralar Taldea eta EAJ taldeak eman dion “laguntza” aipatzen dute behin eta berriz.

Interes berezia agertzen du Bildu udal taldeak Aralar EAJrekin bateratzeko eta Bildu binomio horretatik urruntzeko, duela hilabete batzuk prentsara atera zuten idatzian aipamen hori bera, ere, errepikatzen zen.

Legealdiaren hasieran, batzorde desberdinetako ardura eta erakunde desberdinetako ordezkariak banaketa Aralar, EAJ eta Bildu Udal taldeen artean adostu zen, eta horrek eman dio hiru taldeei lan ildoak erabakitzeko aukera eta bidea. Horrela udal ordezkari eta talde guztiek izan dute ekimenak, proposamenak eta eskaerak egiteko eta bideratzeko aukera. Gobernu Batzordea hiru taldeetako ordezkariak osatu dute, orain arte.

Legealdian zehar alkatetzatik berdin jokatu dugu Bildu eta EAJ udal taldeekin, proposamen, deialdi, gonbidapen, edota informazioa emanez bide desberdinetatik, erregistroaren sarrera-irteeraren berri ematen zaie zinegotzi guztiei, gonbidapenak luzatu ditugu, bertze udal eta erakundeekin antolatzen diren bileretara, sortu diren lantaldeetan parte hartzera, bertze tokietako proiektuen bisita egitera.

Horrela funtzionatu dugu orain arte arlo desberdinetan. Gobernu Batzordean ere aukera hori izan da, baina hasieratik agertu dute Bilduren ordezkariak mesfidantza, proposamenik ez, iritzia gutti batzuetan eta gehienbat distantzia ixil bat. Bide horretan, Gobernu Batzordeko bilerak informazioa emateko gune bilakatu ziren gehienbat.

Orain Batzorde horretako ordezkariak uko egiten dio Bilduk, eta aldi berean bertan solastutakoaren informazioa ematea eskatzen du, eta gero gaiak garrantzitsuak edo eztabaidagarriak direnean plenoan tratatzeko eskaera luzatzen dute. Hori horrela, agintaldia bukatzeko lau hilabete falta direnean! Bada bertze aukera, hasieran egin genuen bezala: zinegotzien bilerak antolatzea; baina hor ere parte-hartze eskasa zegoen. Azkeneko gai eztabaidagarria, tanatorioarena, ez dute planteatu plenoan tratatzeko, haratago joan dira: kasu horretan gaia herritarrekin partekatu behar zen eta ez zinegotzien artean. Eta azkeneko urteko osoko bilkura guztietan hori horrela eszenifikatu da. Ez zaigu arrotza egiten jarrera hori, maiz ikusi ditugu horrelakoak lehen ere.

Bilduren proposamenak ez ditugula aintzat hartu diote. Biomazaren proposamena zehazki guk ekarri genuen. Hasteko, bisita bat antolatu genuen; gero proiektua prestatu genuen; dirulaguntza bideratu, horren gaineko azalpenak aurretik emanda. Baina gaiak nonbait ez zuen garrantzi berezirik eta, exekutatzeko ordua etorri zenean, bertze proposamen baten berri izan zuten, eta epeak gainean zeudenean bertze txosten bat prestatu behar zela eta gaia birplanteatu behar zela.

Alkatetzaren ardura izan dugun legealdi honetan, ez dugu erraten dena ongi egin dugunik, beti finak izan garenik, gehiago egin ez genezakeenik. Legealdian erabaki gehienak aho batez hartu dira, osoko bilkuretan, aurrekontuetan, gobernu batzordeetan. Ez-adostasuna egon denean eztabaidak sortu dira, batzuk sutsuagoak bertzeak baino. Hortik jarrera oldarkorra eta errespetu falta ondorioztatzea, hagitiz iraingarria eta oportunistak da.

Herriaren borondateak balio digu batzuetan, interesatzen zaigunean, interesa politikoa edo partikularra dagoenean. Gure herrian borondate desberdinak badaude, ozenago aritzeak ez du erran nahi gehiengo dagoenik edo arrazoa dagoenik. Udalak saiatu behar du guztien gainetik interes orokorra bilatzen.” -----

Aurreko guztiaz, jakinaren gainean gelditu dira zinegotziak.

Los y las concejales quedan enterados/as de todo lo anterior.

4.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

4.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: B25/2014 eta B1/2015etik B3/2015era.

1) Bandos: B25/2014 y del B1/2015 al B3/2015.

2) Ebazpenak: 2014.eko abenduaren 5eko 271. ebazpenetik 2014.eko abenduaren 30eko 301.era eta 2015eko urtarrilaren 8ko 1. ebazpenetik 2015eko otsailaren 4ko 29.era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 271 de 5 de diciembre 2014 a la nº 301 de 30 de diciembre de 2014 y de la nº 1 de 8 de enero 2015 a la nº 29 de 4 de febrero de 2015.

Gai zerrendatik kanpo, gai bakoitzari premiazko bozketak bana egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hauek tratatu dituzte:

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia de cada uno de los asuntos, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se tratan los siguientes:

5.- "BIDEKO MITXINGORRIA" OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRAK BERAKO UDALARI AURKEZTEN DION MOZIOA, MOLA ETA SANJURJOREN GORPUZKINAK LEKUZ ALDATZEKO ETA FRANKISMOAREN APOLOGIA SALATZEKO.

5.- MOCIÓN QUE LA COORDINADORA NAVARRA DE PUEBLOS POR LA MEMORIA "AMAPOLA DEL CAMINO / BIDEKO MITXINGORRIA" OROIMENAREN ALDEKO HERRIEN KOORDINAKUNDE NAFARRA, PRESENTA AL AYUNTAMIENTO DE BERA PARA EL TRASLADO DE LOS RESTOS MORTALES DE MOLA Y SANJURJO Y CONTRA LA APOLOGÍA DEL FRANQUISMO.

Alkateak mozioaren testua irakurri du eta bozketara egin ondoren, honako emaitza ageritako da:

Aldeko botoak: 10 (4 Aralar, 4 Bildu eta 2 EAJ/PNV)

Aurka: 0

Abstentzioa: 1 (UPN)

Beraz, mozioa onartu dute eta honetan eskatutako erabaki hartu dute, honako testua izanik:

"Oroimenaren aldeko Herrien koordinakundea" ekimenean parte hartzen dugunok, indarrean dagoen legeria (Oroimen Historikoari buruzko Legea, Nafarroako Ikurrei buruzko Legea eta 2013ko azaroko Oroimen Historikoari buruzko Foru Legea) behin eta berriz urratzen dela ikusirik, gure kezka eta ezinegona adierazi nahi dugu. Hori dela eta:

BERAko Udalera jo dugu, bertako udal taldeen bitartez, gogora ekartzeko Nafarroan oraindik frankismoaren gorespina eta apologia egiten dela. Hain zuzen, frankismoaren erregimenaren eta haren erantzuleen zigorgabetasuna gogorarazten dugun apologia. Denbora gehiegi pasa da, Demokrazia eta legezko Errepublikaren gobernu defendatu zutenek, eta beraien ondorengook, gure bizitzetan eta inguruetan kolpezale eta hiltzaileen presentziaren ezarpena jasaten segi dezagun.

KONTUAN HARTURIK:

"Gurutzearen Zaldunak" kofradiako ekitaldiak, gaur egun ere, kriptan egiten dituztela, eta kriptak hau, zenbait soto bezala, Elizarena dela.

La Alcaldesa lee la moción y realizada la votación resulta lo siguiente:

Votos a favor: 10 (4 Aralar, 4 Bildu y 2 EAJ/PNV).

En contra: 0

Abstenciones: 1 (UPN):

Por lo que, aprueban la moción y adoptan el acuerdo solicitado en la misma, siendo el texto el siguiente:

Desde la Coordinadora de Pueblos por la Memoria, ante el reiterado incumplimiento de la legislación vigente: Ley de la Memoria Histórica, Ley de Símbolos de Navarra y Ley Foral sobre Memoria Histórica de noviembre de 2013, queremos expresar nuestra preocupación por la falta de responsabilidad democrática de las instituciones y del arzobispado. Por lo que:

Nos dirigimos al Ayuntamiento de BERA para recordar que en Navarra se sigue enalteciendo y haciendo apología del franquismo. Apología que nos recuerda la impunidad del régimen franquista y sus responsables. Ha pasado demasiado tiempo, como para que, los que defendieron la democracia y al legítimo gobierno de la República, así como sus descendientes, tengamos que seguir soportando la imposición de la presencia en nuestras vidas y entornos de los golpistas y asesinos.

CONSIDERANDO:

Que la Hermandad de Caballeros de la Cruz tiene sus actos en la Cripta que, junto con una parte de los sótanos, es propiedad de la Iglesia Diocesana. En concreto, todos los meses celebra en la misma una misa en recuerdo de

Uztailaren 19arekin, kolpisten altzamendua eta kriptan lurperatuta daudenak gogoratu eta goraipatzeko, elizkizun bat egiten dela urtero. Lurperatutakoen artean, Sanjurjo eta Mola jeneral kolpistak daude.

Gaur egun ondoko lege hauek indarrean daudela: 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, Oroimen Historikoari buruzkoa, eta 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

Salatzen ditugun ekitaldi hauek kolpe militarren eraildakoak eta biktima oro iraintzen dituztela, baita berauen senitarteakoak eta, oro har, nafar guztiak ere.

"Hildakoen monumentoa" delakoaren kriptan egiten duten ospakizun hau terrorismoaren apologia hutsa dela, apologiatzat krimena edo hiltzaileak goratzea hartzen bada behintzat.

Aipatutako ekitaldiak kolpismoaren bortizkeria eta krimenak goraipatzeko egiten direla, eta ez daukatela zerikusirik gure errespetua merezi duten erlijioarekin eta fedearrekin.

Gizartearen gehiengoa frankismoaren kontrakoa izan eta frankismoaren sinbologia kentzearen aldekoa dela.

Frankismoaren sinbologia ken dezatela eskatzeko eskubidea dugula, ez legeak agintzen duelako bakarrik; baizik eta, eta batez ere, gizartearen gehiengoak halaxe eskatzen duelako.

Orain arte azaldutakoa aintzat harturik, eskatzen dugu ondoren zehazten diren erabakiak har daitezela.

lo que se denominó como "*Cruzada*".

Que con carácter "*reglamentario*", cada 19 de Julio se celebra un funeral en conmemoración del levantamiento golpista, y en homenaje a los enterrados en la Cripta, entre los que se encuentran los Generales golpistas Sanjurjo y Mola.

Que a día de hoy rigen normas como la Ley de Memoria Histórica 52/2007 de 26 de Diciembre y la Ley Foral 33/2013 de 26 de Noviembre, de reconocimiento y reparación moral de las ciudadanas y ciudadanos navarros asesinados y víctimas de la represión del golpe militar de 1936.

Que estos actos que denunciamos resultan ofensivos a la memoria de los asesinados y víctimas del golpe militar, así como a sus familiares y sociedad navarra en general.

Que esta celebración en la Cripta del llamado "*Monumento a los Caídos*" es una verdadera apología del terrorismo, entendiéndolo por apología la concurrencia de personas que ensalzan el crimen o enaltecen a sus autores.

Que el acto que reseñamos nada tiene que ver con la expresión de religiosidad o de fe que respetamos, sino más bien al contrario, con la exaltación de los ideales legitimadores de la violencia del golpismo, del crimen y del asesinato.

Que la mayoría social rechaza el régimen franquista y es favorable a la eliminación de toda la simbología franquista.

Y que tenemos derecho a exigir la eliminación de la simbología franquista, no solamente por imperativo legal, sino también, y sobre todo, por esa demanda social mayoritaria.

Solicitamos que, tomando en consideración lo aquí expuesto, se asuman los acuerdos que a continuación se detallan.

ARTZAPEZPIKUTZARI ONDOKOA ES-KATU NAHI DIOGU:

"Hildakoen monumentu" izeneko kriptan (bertan Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkinak gordetzen dira) galaraz dadin 1936ko altzamendu kolpistari lotutako edozein ospakizun egitea, nahiz erlijiosoa izan, nahiz beste mota batekoa izan.

Kriptan dauden jeneralen gorpuzkinak leku pribatu batera eramateko.

Kripta horretan dauden aipamen, grabatu eta altzamendu militarra gogorarazten duen oro bertatik ken daitezela.

Salatutako ekitaldiak egiten jarraitzen den bitartean, galaraz dakiola Gurutzearen Zaldun boluntarioen kofradiari kripta hori erabiltzea.

LABURBILDUZ:

Erakundeetako ordezkariak hauxe galdetzen diegu: gerra eta errepresioaren biktimen eskubidea izanik, hau da, Egia, Justizia eta Ordaina izateko eskubidea, erabaki hauek bere egin ditzatela.

6.- HASSANNA AALIA LAGUNTZEKO ADIERAZPENA.

Nekane Perez zinegotziak mozioaren edukia azaldu eta erabakiak irakurri ditu. Horren ondotik, aho batez, onartu dute mozioa, zeina, ondoan, literalki idatzi duen:

Mozio hau izenpetzen duten talde politi-

SE ACUERDA INSTAR AL ARZOBIS-PADO PARA QUE:

Se impida cualquier tipo de celebración, religiosa o de cualquier otra índole, que guarden relación con actos propios del levantamiento golpista de 1936 en la Cripta de su propiedad, sita en el llamado "Monumento a los Caídos", donde se contienen los restos mortales de los Generales golpistas Mola y Sanjurjo.

Se disponga el traslado de los restos mortales de los Generales sitios en dicha Cripta al lugar privado que se considere.

Se eliminen todas las consignas, grabados y gráficos existentes en dicha Cripta con mención expresa al levantamiento militar.

Se proceda a impedir el uso de dicha Cripta por parte de la Hermandad de Caballeros Voluntarios de la Cruz, en tanto en cuanto dicha Hermandad persista en celebraciones como las ya relatadas.

A MODO DE CONCLUSIÓN:

Reclamamos de los representantes institucionales la asunción de estos acuerdos como un derecho que tienen las víctimas de la guerra y la represión: el derecho a la Verdad, Justicia y Reparación.

6.- DECLARACIÓN DE APOYO A HASSANNA AALIA.

La concejal Nekane Pérez explica el contenido de la moción y lee los puntos del acuerdo. Tras ello, por unanimidad, aprueban la moción que se transcribe a continuación:

Los grupos políticos, que suscriben esta mo-

koek, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarri babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeldian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigiotsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genevako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko

ción, al amparo de la legislación vigente, presentan la siguiente PROPUESTA al objeto de su debate y aprobación, si procede, por el Pleno de la Institución, en relación a la denegación de asilo político a Hassanna Aalia (y el plazo de 15 días para abandonar el Estado español).

Hassanna Aalia nace en El Aaiún, Sahara Occidental, en 1988.

En 2010 participa activamente en el campamento de protesta pacífica de Gdeim Izik. Por este hecho es juzgado y sentenciado a cuatro meses de prisión.

En octubre de 2011 viaja a Bilbao con una beca de estudios. Cuando le faltaban dos meses para regresar a El Aaiún su nombre aparece en la lista de personas que van a ser juzgadas por un Tribunal Militar por los hechos de Gdeim Izik; él decide quedarse en Bilbao y solicitar asilo político al gobierno español, ya que regresar a su país supondría que las autoridades marroquíes le encarcelarían.

El 17 de febrero de 2013 el Tribunal Militar de Rabat dicta sentencia contra 25 civiles saharauis; Hassanna Aalia es sentenciado a cadena perpetua (declarado en rebeldía).

Juristas internacionales de reconocido prestigio consideran este juicio nulo de pleno derecho: no había ni testigos fidedignos ni pruebas, incumpliendo así el Derecho Internacional (Convenio de Ginebra).

Desde entonces recorre el estado español para dar a conocer la situación de desamparo que sufren sus compañeros encarcelados y la injusticia a la que el régimen marroquí somete diariamente al Pueblo Saharaui.

El 19 de enero de 2015 notifican a Hassanna que su petición de asilo queda rechazada y le otorgan el plazo de 15 días para abandonar el

15 eguneko epea ematen diotela.

territorio español.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako ERABAKIAK hartu ditu:

Teniendo en cuenta todo lo anterior, y ante la gravedad de la situación, esta Corporación adopta los siguientes **ACUERDOS**:

1) Hassanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.

1) Manifestar el apoyo y la solidaridad con Hassanna Aalia.

2) Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea eta Hassanna Aliaren asilo eskaera berriz aztertzea eskatzea.

2) Solicitar a la autoridad competente y al Ministro del Interior de España que intervengan en el asunto y se reconsidere la petición de asilo político de Hassanna Aalia.

3) Marokoko Gobernuaren Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.

3) Reiterar la preocupación por la vulneración de los Derechos Humanos en el Sahara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos. Exigimos el final de esta situación de represión y la puesta en libertad a todos los presos políticos saharauis.

4) Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

4) Solicitar la celebración del Referéndum de Autodeterminación en el Sahara Occidental, acordado por la ONU., como única forma de resolver este largo conflicto de manera duradera, pacífica y estable para la Región.

5) Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

Dirigir los presentes acuerdos a:

- a) CASA REAL ESPAÑOLA.
Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid
- b) PRESIDENCIA DEL GOBIERNO DE ESPAÑA.
La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid
- c) MINISTERIO ESPAÑOL DE ASUNTOS EXTERIORES.
Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid
- d) MINISTERIO ESPAÑOL DEL INTERIOR
Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid
- e) MISIÓN PERMANENTE DE ESPAÑA ANTE NACIONES UNIDAS
245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017
- f) DELEGACIÓN DE ACNUR EN ESPAÑA:
Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid
- g) PRESIDENCIA DEL PARLAMENTO EUROPEO.
Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

- h) PRESIDENTE DEL CONSEJO EUROPEO:
Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas
- i) EMBAJADA DE MARRUECOS EN ESPAÑA.
c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

7.- KAXERNA GAZTETXEARI BABESA EMATEA. APOYO AL GAZTETXE KAXERNA.

Garazi Taberna zinegotziak bileran bertan aurkeztutako idatzia irakurri du, honako testua izanik: *La concejal Garazi Taberna lee el escrito presentado en esta misma sesión con el siguiente texto:*

“Berako Udalak idatzi honen bidez adierazi nahi du:

Berako Udalak ez du onartzen UPN udal taldeko zinegotziak Beragazte elkarteari zesio bidez utzia dion Kaxerna Gaztetxea ixtearekin egindako mehatxurik, eta ezta helburu berarekin Polizia Foralarengana jo izana.

Berako Udalak Kaxerna Gaztetxeari bere babesa eskaintzen dio eta konpromezua hartzen du kontzertu gela erabilgarri izan dadin bere eskuetan dagoena egiteko lehenbailehen.

Honekin batera, gai honen inguruan arkitektoak egindako txostena eskatzen dugu, aztertu eta proposamenak egin ahal izateko.

Horren ondotik, eztabaida sortu da gaiari buruz eta zenbat gauza leporatu diote UPNeko Juan Losa zinegotziari. *Tras la lectura, surge la discusión sobre el tema y diversas críticas al concejal de UPN Juan Losa.*

M^a Sol M. Taberna, Alkatea:
Idatziari buruz dio egin behar diren lanak Udalak ezin dituela egin, badirela beste udal eraikiak egoera berean.
Zer da erabilgarri?

M^a Sol M. Taberna, Alcaldesa:
Sobre el escrito manifiesta que las obras que se deben realizar el Ayuntamiento no las puede ejecutar, hay otros edificios municipales en situación similar.
Qué se entiende por utilizable?.

Jon Abril:
Udal eraikinetan bada lan asko egiteko, arazoak badira arautegiarekin, Salaketarik ez bada jardunaldiak antolatzen ahal dira.
Udalak ardura du jabea baita.

Jon Abril:
En los edificios municipales hay mucho trabajo para hacer, hay problemas con la normativa. Mientras no hay denuncias se pueden organizar actividades.
El Ayuntamiento es responsable en cuanto propietario del edificio.

Jose M. Portu:
UPNkoari galdetu behar zaio ea gaztetxea-ekin duen arazoa edo edozein udal eraikia-ekin.
Eraiki publiko batzuk badira horrela eta, ez da batean ere, bidali du Foruzaintza, baka-rrik, eginiko mehatxuen arabera gaztetxea- ren aurka dago.

José M. Portu:
Hay que preguntarle al concejal de UPN a ver si tiene problema con el gaztetxe o con cualquier edificio municipal.
Hay varios edificios públicos en esta situación y a ninguno ha enviado a la Policía Foral, sólo está en contra del gaztetxe, según las amenazas que había hecho.

Juan Losari *desafioa egin dio beste udal eraikietan ere gauza bera egiteko.*

Juan Losa:

Berak hobetu nahi du, egoera onean egotea eta lokala Berako gazteri guztiarentzat izatea. Segurtasunaren gaia kezkatzen zaio eta lehengo arkitekto teknikoaren txostena eskatu du baina beste txosten bat eman diote. Eraikia ez zuen inork aseguratu.

Garazi Taberna:

Juan Losak aldatu du iritzia gaztetxeari buruz, beti erran du (Juan Losa) “os voy a cerrar el chiringuito”.

M^a Sol M. Taberna, Alkatea:

Teknikoa Jokin Pastor da. Segurtasunari buruz, herrian eta Nafarroan ere udal eraiki asko itxi beharko ziren. Erabiltzen ez den zonaldean dago arrisku gehiago, hor bai neurriak hartu behar direla. Dagoen segurua da Udalaren erantzukizun zibilarena. Berak nahi duena da kontzertuak ez egitea, lehenbizikoa gaztetxea salatu, gero Kultur Etxea, gero Beralandeta...

Nekane Perez:

Nola dakien zein den txostena ez bada ezagutzen. Losa jaunak dio ez dituela Beralandetako kontzertuak pertsegitzen eta ez dagoela Gaztetxearen aurka, segurtasuna kezkatzen zaio-la.. Horri buruz, Elizondon bada hezkuntza zentro bat puntalatua eta bere alderdiak ez du moldatzen.

Fernando Berasain: *Uzten ahal zaie epe bat gaztetxean egiten ari direna bukatzeko, asmoa ez da ixtea.*

Le desafía a Juan Losa a que haga lo mismo con los otros edificios.

Juan Losa:

El es partidario de hacer mejoras, que esté en buenas condiciones y que el local sea para toda la juventud. Le preocupa el tema de la seguridad, reclama el informe técnico del anterior arquitecto técnico pero se le ha dado otro informe. Ninguna aseguradora aseguraría el edificio.

Garazi Taberna:

Juan Losa ha cambiado de opinión, siempre ha dicho (Juan Losa) “os voy a cerrar el chiringuito”.

M^a Sol M. Taberna, Alcaldesa:

El técnico es Jokin Pastor. Sobre la seguridad, en el pueblo y en toda Navarra hay edificios municipales que deberían cerrarse. La zona que no se utiliza está más peligrosa, ahí si que se deben adoptar medidas. El seguro que hay es el de responsabilidad civil del Ayuntamiento. Lo que él persigue es que no se hagan conciertos, primero denunció el Gaztetxe, luego la Casa de Cultura, luego Beralandeta...

Nekane Pérez:

Cómo sabe cuál es el informe si no lo conoce. El señor Losa dice que no persigue los conciertos en Beralandeta ni está en contra del Gaztetxe, le preocupa la seguridad. Al respecto, en Elizondo hay un centro de educación que está apuntalado y su partido no lo arregla.

Fernando Berasain: *Se les puede dar un plazo para que finalicen las obras que están haciendo, la intención no es cerrar el gaztetxe.*

Jon Abril:
Kultura ez bazaio molestutzen zein da bere helburua?
Berako kultur bizitza hiltzea bilatzen ari da.

Jon Abril:
Si no le molesta la cultura, cuál es su objetivo?
Busca que se muera la vida cultural de Bera

Isidora Aguirre:
Kultur Batzordean, hasieran, erran zuen Beran ez zegoela kulturarik eta kulturaren aurka jotzen du.

Isidora Aguirre:
En la Comisión de Cultura dijo, al principio, que en Bera no había cultura y lo que hace es ir en contra.

Juan Losa erantzun die:
Obrak Udalak egin behar ditu, eskatzen da kreditu bat eta konpontzen da.
Udal eraiki guztietan berdin eginen luke.
Bere helburua da eraikia konpontzea.

Juan Losa contesta:
Las obras debe hacerlas el Ayuntamiento, se pide un crédito y se arregla.
Haría lo mismo en todos los edificios municipales.
Su objetivo es arreglar el edificio.

Azkenean, Alkateak eztabaidari bukaera eman dio, bozkatu egin dute eta, aho batez, gaia lantzeko konpromisoa hartu dute.

Finalmente, la Alcaldesa da por finalizada la discusión y se procede a la votación, decidiendo por unanimidad, adoptar el compromiso de trabajar el tema.

8.- ITURLANDEAKO BEILATOKIA.

8.- VELATORIO DE ITURLANDETA.

Fernando Berasain zinegotziak, Irache taldeko langileak, alde egin du gaia hasi baino lehen.

El concejal Fernando Berasain, empleado del grupo Irache, se ausenta del Pleno antes de iniciar el punto.

Alkateak dio, agian beste interesatuak badi-rela, Garazi Tabernak badu familia eraiki horretan. Horrekin ez du erraten alde egiteko baina Fernando Berasain ere ez zen zergatik joan behar.
Komentario honengatik, Garazi Tabernak kexa agertu du.

La Alcaldesa manifiesta que, quizás hay otros/as interesados/as, Garazi Taberna tiene familia en el edificio. No quiere decir que tenga que ausentarse pero Fernando Berasain tampoco tiene obligación de ausentarse.
Garazi Taberna muestra su disconformidad por este comentario.

Segidan, Garazi Taberna zinegotziak bileran bertan aurkeztutako idatzia azaldu zeina, literalki, jarraian idatzi da:

Seguidamente, la concejal Garazi Taberna explica el contenido del escrito presentado en la misma sesión, el cual, literalmente, se transcribe a continuación:

“----- 2015.eko otsailaren 10eko osoko bilkuran Bildu Udal Taldeak pleno honetan adosteko hurrengo proposatzen du:

Azken hilabeteetan Iratxe Tanatorio taldeak Iturlandeta 2 eraikinean ireki nahi duen beilatokiaren inguruan bertako bizilagunek ezadostasuna agertu dutelarik eta haien ezinegona modu askotan

helarazi dutelarik; hala nola bai Arartekoak eta baita Bildu Udal Taldeak ere gai honi buruz hainbat gomendio eta proposamen egin dituela kontuan hartuta, hurrengo puntuak onartu nahi ditugu:

-Berako herrian arazo bat dagoela, bizilagunen desadostasunaren gainetik beilatoki bat eraikitzen ari direlako etxebizitzak dauden eraikin batean.

-Berako Udala arazo hau tratatzera behartua dagoela, batetik herritar kopuru handi batek, Arartekoak eta Bildu Udal taldeak egindako eskaerengatik eta, bertzetik, beilatoki zerbitzuak herritar guzietan eragiten diolako.

-Berako Udalak arazo hau tratatzeko orduan Arartekoak egindako gomendioak eta Bildu Udal Taldearen proposamenak kontuan hartu behar dituela, baita herritarren eskaerak ere.

-Berako Udalak arazo honi aurre egiteko pausuak ematera konprometzitzen dela, Berako herrian beilatokiak eraikitzeari buruzko ordenantzei buruzko hausnarketa prozesu partehartzaile bat martxan jarritz.-----

Horren ondoren, horri buruz irizpide desberdinak izan dira.

Posteriormente, se producen distintas manifestaciones al respecto.

M^a Sol M Taberna, Alkatea:

M^a Sol M. Taberna, Alcaldesa:

1) Adostasun bat dago.

1) Conformidad la hay.

2) Udalak gaia tratatu du, herritarrekiko bileretan, Gobernu Batzordean, zinegotziekin bi bilera....

2) El tema se ha tratado en el Ayuntamiento, en reuniones con los vecinos, en la Junta de Gobierno, 2 reuniones con los y las concejales

Jose M. Portu:

José M. Portu:

Hau gibelatu zen, saiatu zen protokolo bat irekitzen.

Esto se ha retrasado, se ha intentado abrir un protocolo.

Garazi Taberna:

Garazi Taberna:

Orain arazo bat dago eta tratatu behar da.

Ahora existe un problema y hay que tratarlo.

Aralarren taldetik erantzun diote, gaia tratatu dela eta Plenoaren ondotik ere hitz egin da.

Por parte de Aralar le responden que el tema ya se ha tratado y al finalizar los Plenos se ha hablado, también.

M^a Sol M. Taberna, Alkatea:

M^a Sol M. Taberna, Alcaldesa:

3) Arartekoari erantzuna eman zitzaion eta bere gomendioak ez dituzte konpartitzen, ez baitira bidezkoak.

3) Se le respondió al Defensor del Pueblo y no comparten sus recomendaciones ya que no son viables.

Bilduren proposamena da Ordenantza aldatu eta prozesu irekitzea.

La propuesta de Bildu es cambiar la Ordenanza y abrir un proceso.

Gaur ekarri dute proposamena.

Hoy han traído la propuesta.

Udalak Udaletxean tratatu nahi dute gaia eta haiek nahi zuten gaia kanpora ateratzea.

El Ayuntamiento ha querido tratar el tema en

Jose M. Portu:

Gaur ekarri dute idatziz baina proposamenak izan dira beste bileretan hitz egiten zutena.

Nekane Perez eta Jose M. Portu lehen izandako bileraz ari dira,prozesua egiteko, haien proposamenak, iritziak, arazoa kaleratu.....

Santiago Alzuguren:

- Ordenantza aldatzea 5/6 hilabete kostako da eta hauteskundeak hurbil daude.

- Bakarrik beilatokia da.

- Nafarroako Gobernuak sartu behar da, Nafarroako arazoa delako.

Juan Losa:

Egia da arazoa badela 900 pertsona aurka daude.

Udalak erraten ahal zitzaion zerbait Irache-ri.

(Alkateak galdetu dio ea hauteskunde kanpaina ari den)

Ez dago hauteskunderi begira arazo bat bada eta bizilagunei ez diete entzuten.

Dena ongi egin dago baina bizilagunak osoko bilkura guztietara etortzen dira, politikoek zerbait egin beharko dute, bide bat ireki, arazoa heredatu behar baita.

M^a Sol M. Taberna, Alkatea:

Uko egiten dio politikoak errudunak direla

Uko egiten dio ez dutela hitz egin.

Eman behar ziren pausuak egin dituzte, hitz egin dute bizilagunekin.

Ordenantzak edozein momentutan alda daitezke, indemnizazioa berdina izango litzateke.

Eztabaida hori izan ondoren, bozketa egin dute:

Idatziaren aldeko boto: 5 (4 Bildu eta 1 UPN).

Idatziaren aurkako boto: 5 (3 Aralar eta 2 EAJ/PNV).

el Ayuntamiento y ellos lo han querido trasladar fuera.

José M. Portu:

Hoy han traído la propuesta por escrito pero las propuestas han estado en lo hablado en otras reuniones.

Nekane Pérez y José M. Portu hablan de reuniones anteriores, ...llevar a cabo un proceso, las propuestas de una parte, opiniones, tratar el tema fuera....

Santiago Alzuguren:

- Modificar la ordenanza llevaría unos 5/6 meses y las elecciones están cerca.

- Se trata sólo de un velatorio.

- El Gobierno de Navarra debería entrar en el tema ya que es un problema de toda Navarra.

Juan Losa:

Es cierto que hay un problema porque 900 personas están en contra.

El Ayuntamiento podría haberle dicho algo a Irache.

(La Alcaldesa le pregunta si está haciendo campaña electoral)

No mira si hay elecciones, hay un problema y no se les está escuchando a los vecinos/as.

Todo se ha hecho en regla pero están todos los días en el Pleno por lo que los políticos algo tienen que hacer, abrir una vía porque el problema se va a heredar.

M^a Sol M. Taberna, Alcaldesa:

Niega que los/las políticas sean culpables.

Niega que no se haya hablado

Se han dado los pasos que se tenían que dar y se ha hablado con los vecinos y vecinas.

Las Ordenanzas se pueden cambiar en cualquier momento, la indemnización sería la misma.

Tras el debate anterior, se lleva a cabo la votación:

Votos a favor del escrito: 5 (4 Bildu y 1 UPN)

Votos en contra del escrito: 5 (3 Aralar y 2 EAJ/PNV).

Bigarren bozketa egin eta lehengo emaitza bera (5 alde eta 5 aurka) suertatu da. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 87. artikuluari jarraikiz, Alkateak kalitatezko botoaren bidez erabaki beharko eta hauxe gelditu da: 5 boto alde eta 6 aurka.

Se realiza una segunda votación con el mismo resultado de empate (5 a favor y 5 en contra). De acuerdo a lo establecido en el artículo 87 de la Ley Foral de Administración Local, la Alcaldesa debe decidir con el voto de calidad y resulta: 5 votos a favor y 6 en contra.

Beraz, Bilduk aurkeztutako idatzia Iturlandetakako beilatokiari buruz ez dute onartu.

Por lo que no se aprueba el escrito presentado por Bildu sobre el velatorio de Iturlandeta.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:10 etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 21:10 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta